

Elgoibar - 1282. zenb.  
XXX. urtea - 2023-04-21



# Herriko musikarien bozgorailua

TOKIKOM BARREN



## ELGOIBARKO IZARRAK AISIALDIKO KOORDINATZAILEA BEHAR DU

### LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK:

- Lan hezitzaile eta euskalduna burutzea.
- Auzoko familiak programa koordinatzea (kulturarrekotasun programa).
- Aisia hezitzaileko ekintzak aurrera eramatea (udalekuak, ekintzak eta abar)
- Egitasmo ezberdinen koordinazioa aurrera eramatea.

### ESKAITZEN DA:

- Sei orduko jarduneko kontratua, irailetik hasita.
- Formatzeko aukera.

### BALORATUKO DA:

- Aisia hezitzailean lan eskarmentua izatea.
- Euskara maila handia izatea, ahoz eta idatziz.
- Begirale titulua izatea edota hezkuntzarekin zerikusia duen gradua amaltua izatea.
- Aisialdiko zuzendari titulua izatea.
- Pedagogia aktiboetan esperientzia edota formazioa izatea.
- Garapen pertsonalerako bestelako gaitasun nahiz praktikak.
- Parte hartzea, hezkidetzaz edota inklusioaren inguruko ezagutza izatea.
- Euskalgintzan jardun izana.
- Elgoibarkoa edo ingurukoa izatea.
- Gida baimena eta kotxea izatea.



Curriculumak bidaltzeko azken eguna maiatzak 31

[www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus) webguneko "koordinatzaile deialdia" atalean eman izena (eskumako zutabea)  
Zalantzarik izanez gero, deitu lasai 943 741 746 zenbakira eta Naiara Martinengatik galdetu.



ArmeriaEskola<sup>x</sup>

# EGIN

# AURREMATRIKULA!

*Aukerarik onena, etorkizuna duena*

ATXUTXIAMAIKAREN ETA UDAL LUDOTEKAREN

## UDAKO OPORRALDIA 23

HH2 - LH6

Izen ematea: apirilaren 25etik maiatzaren 7ra

\*Plazak maiatzaren 20an oslelituko dira/

- On-line izena emateko QRA
- [www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus)
- Aurrez aurre
  - Udal Ludotekan
  - Elgoibarko Izarra Euskaltzalean
  - Topagunearen bulegoan



UDALAREN  
DIRULAGUNTZAK

Arretatzaileak:



Babesleak:



Eskaerak: apirilaren 25etik maiatzaren 7ra  
[www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus) -en edo H.A.Z-en (Udalaren Herriaren Arreta Zerbitzuan);

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zalao Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)



[youtube.com/@Elgoibarrennet](https://youtube.com/@Elgoibarrennet)

Ane Kortaberria

Ikasle ekintzailea

## "Drama" pixka bat



**"Sentitzen dut.  
Beti ez ditugu  
besteek gurekiko  
dituzten espektatibak  
gainditu behar"**

**B**ARRENEK idazten hasi nintzenetik bi urte baino gehiago pasatu dira eta askotan pentsatu izan dut agian idatzi izan dudan iritzi artikuluren bat edo beste ez zela interesgarria izango irakurleentzat.

Baina sentitzen dut, beti ez ditugu besteek gurekiko dituzten espektatibak gainditu behar. Gainera hau gutxi izango balitz, batzuetan guk geuk presionatzen dugu gehiegi gure burua eta nahikoa dugu horrekin. Ikasketetan, kirolean, lanean... alor desberdinetan islatu daitezke espektatiba kontuak, lankide, anai-arreba, ikaskide, bikotekide edo lagunekin alderatzera ohituta gaudelako.

Orain bertan, zalantza asko ditut Unibertsitatea bukatu ostean datorren etaparen inguruan eta aitortu beharra daukat, "helburuak beti oso argi izan dituzu" edo "norabidea ondo zehaztuta duzu" askotan errepikatu izan didan arren jendeak, momentu honetan bidea galdera ikurrez beteta ikusten dudala.

Baina eskerrak ez naizen bakarra! Aurrekoan lagun batekin honetaz hitz egiten aritu nintzela, bizitza honetan bi pertsona mota daudela jabetu ginen biok: batetik, bi aldiz pentsatu gabe erabaki bat hartzen dutenak, eta bestetik, buruari mila buelta ematen dizkiogunak, hamaika egoera desberdin planteatuz.

Hala ere, esan beharra dago irudikatzen ditugun egoerak oraindik ez ditugula bizi izan. Beraz, erabaki bat hartzerakoan ezingo ditugu beste egoeren faltan igarri, hauek existitu ez direlako.

Laburbilduz ezer ez da hain garrantzitsua. Egia esan, oso ondo bizi gara eta zalantzarik gabe pribilegioz beteta gaude! Izan ere, batzuetan "drama" pixka bat egitea ere ez dago bat ere gaizki...



### Gizartearen festa

Aspaldi eta xehetasun zabalagoz, saio gisa, landutako gai baten laburpenarekin nator gaur, hauteskunde haizeak hurbiltzen ari diren honetan abagune egokia delakoan. Joxean Artze, gure olerkari finak idatzi eta esaten zuenez "Gizakia mundu txiki bat da eta gizartea, gizaki handi bat". Ezker eta eskuin gara gutako bakoitza, biak dira elkarren osagarri; bestela mainguak ginateke. Batak ezin duena, bestearen laguntzaz lortzen du eta hala osatzen da gizakia.

Gizartea ere hala osatu izan da betidanik, ezker eta eskuin, simetriaz. Lorpenak babestea nahi dute, batez ere, politika eskuindarra egiten dutenek eta, egia esan, ondo dago gizartearen onerako diren aurrerapenei eutsi eta areagotzea. Guztiontzat on diren lorpenak, batez ere. Bestela, luza gabe gizartea ez da eskuin-ezker banatuko, aberats-behartsu binomioan baino. Gizarte harremanetan, izan ere, arrazoi asko tarteko, injustizia eta desoreka asko sortzen dira, beti herritar xehearen kaltetan, eta horiei aurre egitea ere badagokigu. Gizarte maingua ginateke bestela. Giza balioak kontuan hartuta, guztioi, ezker zein eskuin, komeni zaigu oreka lortzen saiatzea, gizarte orekatua denontzat baita mesedegarri. Laboak beste olerki eder batean abesten duenez, "Bat inon goserik deino ez gara gu asetuko; bat inon loturik deino ez gara libre izango".

Diktadura sasoi bortitzaren ondoren mitinak egiten hasi ziren 1970ko hamarkadaren azkenetan eta gogoan dut zein gustura joaten ginen bataren zein bestearen "espitxeak" eta esloganak entzutera, Fraga edo Blas Piñar-enak salbu. Ni, behintzat, bai. Gauza berria zen eta festa itxura osoa zuten sortzen ari ginen demokrazia berriaren jardunaldi haiek.

Horixe da gaur ikusi eta somatzen dudana alde handi bat. Orain, hauteskundeak hurbiltzean, pasatu beharreko ekaitz bezala ikusten ditut, ez festa bezala. Herriko dinamika alderdi bataren edo bestearen harresietan galtzen da. Akordioak lortuz, indarrak batuz lor daitekeena, ahul geratzen da alderdikarien erruz. Kalera irten eta, batez ere hauteskunde garaian, labanarekin mozteko moduko tentsioa somatzen da, herrigintzan dihardugun elkarren lankide izan beharrean elkarren etsai bihurtzeraino. Mesfidantza, boterea galtzeko beldurra. Horrek antzu bihurtzen du lankidetzat. Eta ez dut atsegin. Beste batzuk aterako dira, ziurrenik, jokaera horretatik irabazle, baina herria eta herritarrok ez.

Herrigintza auzolana dela entzuten dugu sarritan eta ados nago, baserrian ezagutu nuelako zer zen auzolana. Han ez zen kontua nik ala zuk irabaztea, auzoko beharrei txandaka, nik zuri eta zuk niri, erantzutea baino. Iruzurra gertatzen da gauza bat esan eta bestea egitea, lan berean ari direnei datuak ezkutatzea. Boterearen jokoan sartu gara eta ez lankidetzaren fruitu izan behar lukeen herri eta herritarren zerbitzu egokian.

Politika, hizki handiz idatzi eta esaten den hori, bulegoetan egiten da gaur egun; hiriburuetako bulegoetan, zehatzago esateko eta gure bizkar hartzen diren erabaki horiek, goitik behera ezartzen zaizkie alderdiei, behetik gora sor litekeen dinamika eragotzi ez ezik galerazteraino. Ziurrenik utopia hutsa da eta ezinezkoa gaur egun politikak zein gobernatzeko moduak hartu duen jitea aldatzea. Baina utopia izan da beti aurrerapenen motorra eta saiatu egin beharko. Lortuko ahal dugu politika ataka estu eta pobre hauetatik ateratzea! Merezi dugu.

Zorionak eta eskerrak, bide batez, gure herriko arazo eta beharrei erantzuteko asmoz zerrendetan aurkezteko konpromisoa hartu duzuen guztioi. Ez da erraza eta gure laguntza beharko duzue. Saiatu ukalondo ukalondo lan egiten eta ez elkarri ukalondoka.

A. Ugarteburu

### Kutsadura akustikoa

Elgoibarko erdiguneko bizilagunok urteak daramatzagu kutsadura akustiko larria jasaten. Ekortzeko makina 06:00etan egunero, zaborrak kentzera; trenak 06:00etatik aurrera, eta orain, Euskotren, gaueko 00:00etan, infernuko zarata ateratzen, lehortzen ari diren hiru makinekin (Udalaren baimena dutela esan dute udaltzainek). Udalak bere herritarren atsedena ondu zaindu behar du. Honi guztiari gau osoan martxan dagoen Aita Agirreko motor baten zaratak gehitzen badizkogu, ezin da lo egin!

J.J.A.

### Erronkak

Hauteskundeak datozela eta, kezka sozial zabala duten gaiak erakundeetan nola erabiltzen diren gaur egungo eztabaidagai garrantzitsua da. Gure herrian bada kezka zabala anbulatorioak aspaldian izan duen arreta orduetan izan duen murrizketaren gainean. Arazoa ez da gure herrikoa bakarrik, jakina, baina gurean modu berezian adierazten ari da, plataformaren lana dela medio. Zuzenean

esan gabe, baina Osakidetzaren birmoldaketarekin egiten dugu topo, eta gai horren eztabaida herritik harago doa. Baina garbi dagoena da herri mobilizazioak Udalean aurki dezakeen babesa, -horri lekua eginez Udalaren jardunean, goragoko instituzioetara gaia eramanez, osakidetzaren birmoldaketa hori eztabaidan jarriz, herrian, diputazioetan, jaurlaritzan- oso garrantzitsua izango dela aurrerantzean. Honek erronka jartzen dio hurrengo osatuko den Udalari, gaiari zenbateko indarrez helduko ote dion ikusi behar baita, baina baita goragoko erakundeen lanari ere, diputazioari zehazki, izan ere, eztabaida guzti honetan nola jokatu behar duen argitzeko baitago.

**J.M. Mendizabal**

### **Jokin Bildarratz Hezkuntza Kontseilari agurgarriari gutun irekia**

“Eragin minimotzat” hartu duzun % 6 horretako bi familia gara. Baina zenbaki horren atzean gure familiak daude, hezur-haragizko izakiak eta orain bertan babesgabe eta indargabe sentitzen garenak. Zure sailak gure seme-alaben hezkuntzari buruzko erabakia hartu du guri aukera hori kenduta. Gure hezkuntza sistemak hainbat hezkuntza eredu errekonozitu eta babesten ditu. Eredu publikoa dago, erlijio zentroena edota ikastolena. Denek partekatzen dute oinarri komun bat, baina bakoitzak bere ñabardurak ditu, gure familientzat garrantzitsuak direnak: pedagogia eredu, antolaketa eredu, zerbitzuak, egutegiak, instalazioak, etab. Eredu horien artean aukeratzeko eskubidea, askotan hezkuntza-zentroak bisitatu ostean edota ate ireki jardunaldien ostean egina, egon da indarrean orain arte gure hezkuntza sisteman.

Guk ere uste dugu segregazioa arazo bat dela, baina arazo konplexua da, eragiten diena gizarteko eremu guztiei, ludotekei, plazei, udal musika eskolari, etab. Eta, jakina, landu beharra dago baita hezkuntza arloan ere. Halere, uste dugu Hezkuntza Sailak hartutako neurriek ez dutela arazo hori konpontzen; are gehiago, planteaturiko aldaketa apurrek inpaktu minimoa edukiko dute segregazioan. Eta aipaturiko neurri horiek gauzatzeko ukatu egiten zaigu absolutuki gurasooi gure seme-alaben eskolatzeari buruz erabakitzeko eskubidea. Gure iritziz, Euskal Autonomia Erkidegoa ez da “guztiantzako kafea” errezetatzeko bezain handia, tokian tokiko errealitateak kontuan hartzen dituen udal-azterketa alde batera uzten den bitartean.

Bestalde, ez zaigu egokia iruditzen zaurgarritasuna neurtzeko modua; izan ere, inkesta hori betetzen duen pertsonaren fede onaren mende dago, batez ere, eta gure seme-alaben hezkuntza-ibilbide osoa baldintzatzen duten matrikulazio-unekeo datu zirkunstantzialen mende ere bai. Eskola-plazak irizpide gardenekin neurtu eta berresleitu beharko lirateke, pikarokeriarako aukerarik ematen ez duten datu objektibo egiaztagarriekin.

Azkenik, aurkeztutako errekurtsoen aldeko ebazpena eskatzen dugu, gure seme-alaben hezkuntza gure betebeharra eta eskubidea dela pentsatzen baitugu, ez baikara zaintzaile hutsak. Era berean, uste dugu erreakzio sozialaren analisiak (familien erreklamazioak, elkarretaratzeak, hezkuntza-zentroen adierazpen publikoak, etab.) balio behar duela eskola plazen esleipen prozesua birformulatzeko eta horrek balio dezala hezkuntza komunitate guztiaren adostasuna lortzeko. Zintzoki uste dugu helburuak, nahiz eta berau oso txalogarria izan, ez dituela bitarteko hauek justifikatzen. Atxikimenduetarako esteka: <https://chng.it/VQsMN4H9Wg>

**N. eta E.-ren familiak**

### **Eskerrik asko**

Mendaroko Txirrindulari Elkartetik eta Lizarpe Mendi Klubetik eskerrak eman nahi dizkizuegu apirilaren 1eko egun handia antolatzen lagundu zenuten guztioi. 11. Kilimon Trail lasterketa izan dugu aurtengoa eta oso pozik gaude egindako lanarekin eta lortutako emaitzarekin. Euskal Herriko Kopako proba puntuagarria izan da aurten, eta Euskal Mendizale Federazioko txapelketa ere bai, eta bistan da hori ezingo genukeela zuek guztion laguntzarik eta babesik gabe lortu. Lan handia da maila honetako proba bat antolatzea, baina babesle, laguntzaile eta boluntariook erantzuten duzuela ikusteak poza ematen du, bai eta indarra ere datorren urtekoari ilusio handiagok heldzeko. Hustuta amaitu dugu, baina aldi berean, beteta. Mila esker, beraz, zuri, kirolari, mendiko lasterketen egutegian gurea aukeratzeagatik; eskerrik asko esatari eta hedabideotako lagunoi ere, gure proba honi zabalkundea emateagatik; eta gure eskerrik beroena Mendaroko herriari: Udalari eta boluntario lanetan jardun zineten guztioi. Gustu baduzue, datorren urtera arte.

**Mendaroko Txirrindulari Elkartea eta Lizarpe Mendi Kluba**




I. URTEURRENA

## **Luis Mari Arrillaga Garate**

2022ko apirilaren 11n hil zen, 78 urte zituela.

**Betirako izango zaitugu gogoan.**

Emaztea, seme-alabak eta familiako gainerakoak



I. URTEURRENA

## **Axen Otegi Sorrondegi**

2022ko apirilaren 12an hil zen, 95 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, apirilaren 22an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrak.



I. URTEURRENA

## **Jaione Astigarraga Sudupe**

2022ko apirilaren 23an hil zen, 53 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, apirilaren 23an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrak.



XII. URTEURRENA

## **Edurne Gabilondo Aizpitarte**

**Zure goxotasuna gure bihotzetan dago.**

Maitasunez, Amaia, Josu, Lurdes eta Jesusek



XII. URTEURRENA

## **Edurne Gabilondo Aizpitarte**

**Zure begiek ene maitia  
badute biek dir-dir eztia  
zeruko lore miresgarriak  
izarren pare zoragarriak.**

Haren oroimenez XII. urteurreneko meza izango da, zapatuan, apirilaren 22an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.





Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112




688 655 658



### **Mendaroko Garagartzako elizpea zikin-zikin egoten da:**

"Garagartzako elizpea ezkutuan geratzen da, eta azkenaldian beti zikinkeriaz beteta agertzen da. Hondakinak, botaka, pixka... denetarik ikusten da. Errespetua eskatu nahi diegu bertan biltzen direnei".



### **Herrigunea ez da txakurren kakalekua:**

"Txakurrek pixa eta kaka egiteko beharra dutela badakigu, baina herrigunea ez da horretarako lekua. Txakurjabeek ere ez daukate erraz horretarako leku aproposak bilatzen, baina beraien ardura da txakurren kakak jasotzea. Herria nazkagarri dago".



### **Mendaro zikin-zikin dago azkenaldian:**

"Txaletetatik Beitxi baserri aldera doan bidea zabar-zabar eginda dago, zikinkeriz josita. Industrialdean ere, garagardo latak eta bestelakoak daude bazter guztietan, eta ospitalerako igogailuan ere zabaldu ordurako egin dituzte pintaketak. Aspaldi honetan zaborrez josita dauzkagu herriko bazter guztiak, zikin. Horregatik, kontzientzia hartzeko eskatuko nieke herritarrei, arduraz jokatzeko eta ez izateko hain narrasak. Bide batez, inguruak garbi mantentzeko beste ahalegin bat egiteko eskatuko nieke arduradunei, beharra badugulako".




**Mintxetako pasealekuan kaka egiten du jendeak:** "Sarri joaten naiz Mintxetara, eta azkenaldian behin baino gehiagotan ikusi du jendea futbol zelai inguruko pasealekuan txiza zein kaka egiten. Batzuek agian pentsatuko dute Mintxetako komunak erabiltzeko tabernan kontsumitu egin behar dela, baina ez da derrigorrezkoa, eta kirolgunea zabalik dagoen bitartean komunak erabili daitezke. Pasealekuan kaka egitea txerrikeria bat da".



## Jupiterrera bidean den 'Juice' misioan parte hartu du Goimekek, Danobatgroup taldeko enpresak

Goimek, Danobatgroupeko doitasun handiko mekanizazio enpresa, Sener Aeroespacialekin lankidetzan aritu da *Juice* misioan. Joan zen barikuan abiarazi zuen Europako Espazio Agentziak *Juice* (*Jupiter Icy Moons Explorer*), Guyana Frantsesean duen kosmodromotik. Hamar tresna zientifiko, esperimendu bat eta erradiazio monitore bat daramatza barruan *Juice* espaziontzia eta zortzi urteko bidaia egin ondoren hasiko da Saturnoko datuak Lurrera bidaltzen. Saturnoren barnealdea, atmosfera, inguru elektromagnetikoa eta ehun bat ilargi dituen eraztunen sistema aztertuko ditu; Saturno planeta bera, eta haren izoztutako hiru sateliteak: Kalisto, Europa eta Ganimedes. Azken batean jakin nahi dute satelite horien azal izoztuaren azpian dauden ozeanoetan bizitza sortzeko baldintzak ematen diren.

Teknologia aurreratua behar da halako misio bat martxan jartzeko, eta Euskal Herriko eragileek ere egin dute beren ekarpena. Besteak beste, Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia Planetarioen Taldea ere jardun da *Juice* misioan, bai eta Goimek enpresa ere. *Juice* espaziontzia daraman irabazi ertaineko antena fabrikatzen jardun dira Goimeken (MGAMA edo *Medium Gain Antenna Main Assembly*). Goimeketik jakinarazi dutenez, antena hori bi ardatzetan orienta daiteke, X eta Ka bandetan jarduten da, bai ontziaren



eta Lurraren arteko norabide biko komunikazioa lortzeko, bai eta zundak irrati maiztasunarekin daraman esperimenduaren funtzionamendua bermatzeko ere. Islatzaile nagusia fabrikatzeaz arduratu da Goimek. Islatzaile horrek 0,7 mm-ko lodiera duen titaniozko pieza du, eta 500 mm-ko diametroa eta oso doitasun handiko perdoi geometrikoak ditu. Baina era berean, sistemak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren elementu osagarriak fabrikatzeaz ere arduratu dira Goimeken: strutak eta subfletorea.

Danobatgroup enpresa taldeko kide da Goimek, 50 urte baino gehiagoko esperientzia dauka eta pieza mekanizatuen hornidura katearen behar guztiak barne hartzen ditu.

### Pintxo lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak biharko eta etzirako



Apirilaren 22an eta 23an egingo dute aurten Mendaron pintxo lehiaketa, eta lau tabernak parte hartuko dute: Uztargik, Aitzbeltzek, Lagun Betikoak eta Ormolak. Goiz eta arratsalde salduko dituzte propio lehiaketarako prestatutako mokadu goxoak: goizez, 12:00etatik 15:00etara, eta iluntzez, 19:00etatik 21:00etara. Herritarrek pintxo gustukuena zein den hautatzeko aukera ere izango dute eta botoa ematen duten guztien artean 50 euroko hiru bono zozkatuko ditu Udalak, lehiaketa irabazten duen tabernan gastatzeko. Era berean, apirilaren 22rako (domeka) Bizi-Poza txarangaren kalejira ere lotu dute. 19:00etan hasiko dira txarangakoak kalez kale giroa jartzen.



## Aitatasunari buruzko ikastaroa emango dute Elgoibarren, Lilan

**A**itatasunak izeneko ikastaroa antolatu du Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak, apirilera eta maiatzerako. On: Giz/Ez: Berdin elkarterko Mikel Arakistainek emango du ikastaroa, Lilan, eta lau egun izango dira guztira: apirilaren 27a, eta maiatzaren 4,18 eta 25a. Aita izateak dakartzan onurak ezagutaraztea, sentimenduak adieraztea eta aitatasunak eskaintzen dituen aukerak zaintzea izango da ikastaro honetako helburua. Ikastaroa hiru arlotan zentratuko da nagusiki: aita eta gizona izateko prozesuan bide propioa egitea, parte-hartzaileen artean konfiantzazko harremanak sortzea eta familiarekin eta gizartearekin dituzten



erantzukizunez jabetzea. Laburbilduz, tresnak eta baliabideak eskainiko ditu Arakistainek seme-alabek bizitzan dituzten premiei arduraz erantzuteko gaitasunak garatu ahal izateko.

18:00etatik 20:00etara izango da ikastaroa, euskaraz, Lilan. Aitei eta haurren erreferente diren gizonen zuzenduta dago. Izena emateko: [labur.eus/lila2023](http://labur.eus/lila2023).

### Martxoko langabezia datuak, argitara

Martxoko datuen arabera, 2.636 langabe daude enplegu bulegoetan erregistratuta Deba, Eibar, Elgoibar, Mendara, Mutriku eta Soraluzen, otsailaren bukaeran baino 12 gutxiago. Eskualdeko langabezia-tasa %10,06an zegoen martxoa amaieran. Elgoibarren otsailean baino 11 langabe gutxiago zeuden erregistratuta; eta, Mendaron, aldiz, bi langabe gehiago.

### Administrari laguntzaile lanpostua, Mendaroko Udalean

Administrari laguntzaile bat kontratatzeko prozesua hasi du Mendaroko Udalak. Kontratuak hiru urteko iraupena izango du gehienez, izendapenetik aurrera. Herritarrei arreta ematea, arloko gaien administrazio-izapideak egitea eta Udaleko hainbat arlotako espediente eta gaitan administrazio-lanak egitea izango da bere funtzioa. Maiatzaren 4 da aurkezteko azken eguna. Informazio gehiago: [www.mendaro.eus](http://www.mendaro.eus)

### Bizi-bizixa bono kanpaina hasi du Elgoibarko Udalak, eta herriko 45 establezimentu batu dira

Herriko merkataritza dinamizatze eta biziberritzeko, beste Bizi-Bizixa kanpaina bat jarri du martxan Elgoibarko Udalak. 45 saltokik parte hartuko dute kanpaina eta bonoen balioa erosketan egiten den momentuan aplikatuko diete bezeroei, erosketan egin duten dendan bertan. 5 euroko balioa duen erosketan egiteagatik, 1,25 euroko deskontua aplikatuko diete; 10 eurokoagatik, 2,5 eurokoa; 20 eurokoagatik, 5 eurokoa; 30 eurokoagatik, 7,5 eurokoa, eta 60 euroko balioa duten erosketagatik, 15 eurokoa. Bonoak maiatzaren 26ra arte trukatu ahal izango dira kanpainara batutako dendetan, beti ere aurretik gastatzen ez badira.

Denda bakoitzean 88 bono banatu ditu Elgoibarko Udalak eta kanpaina honetarako 30.000 euroko inbertsioa egin du Udalak.



## Enetz Ezenarro izango da bigarren aldiz jarraian EH Bilduren hautagaia Mendaroko alkatetzarako



**E**netz Ezenarro Arriola (Mendaro, 1977) EHUKo irakaslea aurkeztuko du EH Bilduk Mendaroko alkatetzarako hautagai moduan. Azken lau urteetan EH Bilduko zinegotzi eta Udal Taldeko bozeramaile bezala aritu da, eta egin duen lana "oso positiboki" baloratuta erabaki dute Mendaroko EH Bilduko oinarriek datozen udal hauteskundeetan alkatetzarako hautagaia errepikatzea.

EH Bildutik adierazi dute ez dela agintaldi erraza izan eurentzat eta 2019ko emaitzei erreferentzia eginez (alderdi bozkatuena izan zen EH Bildu Mendaron) salatu dute EAJK eta PSE-EEK alderdien interesak jarri dituztela mendaroarren interesen gaitetik. EH Bildutik egindako ekarpenak gutxietsi eta "bereak balira bezala" aurkeztea leporatu diote EAJri eta formalismoetatik harago Mendaroko gaietan "interes eta intentsitate gutxi" jarri izana PSEri.

Hauteskundeetarako izendapena ilusio handiz hartu duela esan du Ezenarrok eta bere helburua herritarrekin elkarlanean beren programa gauzatzeko hauteskundeak irabazi eta Mendaroko Udala gobernatzeko izango dela. Horretarako ezinbestekoa ikusten du EH Bilduk gehiengo osoa lortzea: "PSE bozkatzen duenak, argi izan behar baitu, gaur gaurkoz Mendaron PSE bozkatzea, EAJ bozkatzea dela".

## Zabaldu dute udan egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko eskaerak aurkezteko epea

Zerbitzu honen bidez, aldi bateko egonaldiak egoitzetan egiteko aukera ematen zaie beren etxeetan bizi diren mendekotasuna eta desgaitasuna duten pertsonen. Egonaldiak ekainaren 15etik irailaren 17ra egin ahal izango dira, hamabostaldi naturaletan. Hala ere, sarrera edo irteerek ez dute zertan hilaren 1ean, 15ean edo hileko azkeneko egunarekin bat etorri behar. Hona eskaerak aurkezteko azken egunak: egonaldia ekainean egiteko: maiatzak 5; uztailan egiteko: maiatzak 12; abuztuan egiteko: ekainak 9; eta irailean egiteko: uztailak 14. Elgoibarko Udaleko Gizarte Ongizate Sailean egin behar dira eskaerak. Horretarako hitzordua eskatu behar da HAZen aurrez aurre zein 943 741 050 telefonora deituta.

## Mobilizazio gehiago antolatu ditu Elgoibarko 24/7 Plataformak apirilera eta maiatzerako



Bi urte dira anbulatorioan etengabeko arreta zerbitzua ezar dezaten eskatzeko Elgoibarko 24/7 Plataforma sortu zutenetik, eta bigarren urteurrenaren harira, mobilizazioak antolatu dituzte datozen asteetarako. Plataformakoak pozik agertu dira herritarrek bi urte hauetan emandako erantzunarekin, baina helburuak lortzeko lanean jarraitzea ezinbestekoa dela azpimarratu dute. Hona hemen mobilizazioetarako egutegia:

- Apirilak 26: Elkarretaratzea Kalebarren plazan, 19:00etan. Anbulatorioa aste osoan 24 orduz zabaltea eskatuko dute.
- Maiatzaren 4an eta 11n: Informazio panelak jarri eta diptikoak banatuko dituzte: 11:00etatik 13:00etara, eta 18:30etik 20:00etara Kalebarrenen.

## Mahai-aulkiak eta parrillak dituen aisialdi gune gabe geratu da Sallobente

Sallobente auzoko mahaiak eta parrillak erretiratu ditu Udalak, lursailaren jabeak hala eskatuta. Udaletik jakitera eman dutenez, mahai-aulkiak eta parrillak dauden zelaiguneko jabearekin hitzarmen bat zuten, 1999. urteaz geroztik. Hitzarmenaren arabera, jabeak zelai hori erabiltzen lagatzen zion Udalari, debalde, "inongo errentarik kobratu gabe". Udalak mahai-aulkiak eta parrillak jarri zituen zelai horretan eta ordutik eremu hori herritarren aisialdirako erabili da. Orain, baina, hitzarmena sinatu zuen pertsonaren oinordekoek adierazi diote Udalari ez dutela lagapenarekin jarraitu nahi, eta hitzarmenari amaiera eman nahi diotela. Era berean, Udalari eskatu diote zelaian dauden instalazioak (mahai, banku, parrilla eta abar) kentzeko. Jabeekin berba egin eta akordio batera ailegatzen saiatu diren arren, ez dutela nahi zuten emaitzarik lortu azaldu dute



udal arduradunek. Ondorioz, Udalak mahaiak, bankuak eta parrilla erretiratu ditu. Edonola ere, era honetako aisia guneak sustatzen jarraitzeko asmoa dutela adierazi dute Udaletik.

### Bihar aurkeztuko du Elgoibarko EH Bilduk zerrenda osoa, Kalegoen plazan



Udal hauteskunderi begira jarrita daude alderdiak, eta EH Bildutik hiru elkarrizketa antolatu dituzte egunotarako. Era berean, jakinarazi dute bihar, hilak 22, zapatua, aurkeztuko dutela Udal Hauteskundeetarako zerrenda osoa jendaurrean. Kalegoen plazan egingo dute ekitaldia, 13:00etan.

#### Beste bi hitzaldi

Martitzenean, Nerea Kortajarena Ibañez (Donostia, 1974) legebiltzarkidea izan zen Elgoibarren, Aitziber Aranberri alkategaiarekin batera zaintzaren inguruko *Elkar zaintzen duen herria* solasaldian parte hartzen. Apirilaren 25erako antolatu dute hurrengo hitzaldia, *Abante gazteak*

izenburupean. Haizea Kortaberria Garetxana (Eibar, 1995) kazetariak emango du. Ernairen sorrera prozesuan hasi zuen militantzia Kortaberriak, eta Ikasle Abertzaleak antolakundean militatu zuen Unibertsitate garaian. Ernai eta Euskal Herriko Neska\* Gazteen sarean ere aritutakoa da. Kortaberriaren hitzaldia EH Bilduren Bilgunean izango da, 19:00etan hasita.

Hitzaldi-ziklo honetako azken saioa maiatzaren 2rako iragarri dute, *Hobetzeko garaia da* izenburupean. Arnaldo Otegi EH Bilduko idazkari nagusiak (Elgoibar, 1958) emango du, eta Aita Agirre Kulturgunean izango da, 19:00etan hasita.





### ***Garbiñe Egaña Lizundia***

2023ko apirilaren 7an hil zen, 89 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu  
jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



### ***Txaro Aizpiri Arriola***

2023ko martxoaren 31n hil zen, 82 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



### ***Dionisia Lopez Sanchez***

2023ko apirilaren 16an hil zen, 91 urte zituela.  
Haren oroimenez meza izango da, zapatuan,  
apirilaren 22an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren  
eliz-parrokian. Joango zaretanoi, aldez aurretik eskerrak.

***Betirako izango zaitugu gogoan.***

Etxekoak



I. URTEURRENA

### ***Rosario Arrieta Etxaniz***

2022ko apirilaren 10ean hil zen, 93 urte zituela.

# ASTEBURU BEREAN DATOZ UDABERRIKO GARAROCK SAIOA ETA EME EGUNA

✍️ Ainara Argoitia / 🎧 EME

Bi egun bete-beteak izango dituzte musika zaleek. Gaur, barikua, Ama Say eta Arima taldeen kontzertuak izango dituzte Mendaron, Gararock taldeak Udalaren babesarekin antolatuta, eta bihar, EME eguna ospatuko dute Elgoibarren. Elgoibarko Musikarien Elkartek antolatu du EME eguna, Udalaren eta Ilunpe, Maala, Malape eta Viento Sur tabernen laguntzarekin. San Agustin kulturgunean izango dira gaur kontzertuak Mendaron, 21:30ean hasita, eta Maalan ospatuko dute bihar EME eguna. 15:00etan bazkaria egingo dute, Maalan, eta 18:00etatik aurrera kontzertuak izango dira. Hilaren 26rako, berriz, elkarrizketa musikatua lotu dute Elgoibarko Musikarien Elkartekoek Su Ta Garreko Aitor Gorosabel gitarra jotzailearekin. Jon Gurrutxaga kazetari eta musikariak elkarrizketatuko du Gorosabel, Kultur Etxeko Sotoan, 19:30ean.

Musikak batuko ditu gaur-biharretan Elgoibar eta Mendaro, eta hiru orrialde hauetan batu dugu eragileek osatu duten egitarau oparoa.

## UDABERRIKO GARAROCK, GAUR, MENDARON

Musika zaleen agendan leku berezia hartu du azken urteotan irailean Mendaron antolatu ohi duten Gararock jaialdiak, Mendaroko kultura eskaintza aberasteko asmoz lagun talde batek sortu zuen jaialdiak. 2016an antolatu zuten estreinakoa, eta 2020an, pandemiagatik, ezin izan zuten irailean jaialdirik antolatu. Arantza hori kentzeko, 2021ean, udaberriko zikloa antolatu zuten: *Begiekin entzutekoak*. Lau kontzertu gogoangarri izan ziren orduan, eta ordukoaren bidetik, zabaldu dute, aurten ere, Gararocken eskaintza udaberrira. Hala, bi kontzertu antolatu dituzte gaurko: Ama Say taldearena eta Arima taldearena. San Agustin kulturgunean izango dira biak, 21:30ean hasita, eta antolatzaileek aurreratu dute kanpoan, Garagartzako plazan, taberna ere jarriko dutela.

## Ama Say .....

Ortuellan sortutako taldea da. AEBetako rock talde alternatibo garaikideen soinu distortsioa eta melodiarako sena jorratu zuten, euskaraz eta ingelesez. Bi disko eta CD bat argitaratu zituzten, eta 1995ean banandu ziren. Taldekideetako batzuek Zein? sortu zuten, baina 2008an Ama Say itzuli zen eta beste disko bat grabatu zuten. Azken lana aurkeztera datoz: *Ero Bomb*. Ibon Bilbao *Topo* (ahotsa, gitarra), Gorka Molero (gitarra), Karlos Osinaga Txap (gitarra, mostratxa), Mikel Gonzalez (baxua) eta Gontzal Bilbaok (bateria) osatzen dute taldea.



## Arima .....

Muskizko taldea da Arima, eta lau lagunek osatzen dute. Hasieratik dauden Paule Bilbao (gitarra eta ahotsa), Josu Gonzalez (baxua) eta Gontzal Bilbaok (bateria), eta Josu Palaciosek (gitarra). Rocka egiten dute, eta hiru disko dituzte argitaratuta. *Metamorphosis* izan zen beren estreinakoa (2019, Bonberenea), *Biluztasunez jantzita* etorri zen gero 2021ean (Bonberenea), eta *Beldurrez beste egitean da* euren azken lana (Bonberenea). Aurten eman dute argitara eta horixe aurkeztera datoz Mendarora. Aurrez ere izanak dira Arimakoak Mendaron.



Bihar, EME egunean, zazpi talderen kontzertuak izango dira Maalan, eta emekideen bertsio festarekin emango diote azkena ospakizunari. 23:45ean hasiko dute bertsio festa. Hona, taldeen aurkezpen.

**Gabi eta Alfon (18:00-18:30) .....**

Koska euskal rockaren talde aitzindariaren bi konpositoreek, Gabi Agirregomezkortak eta Alfonso Guillok, osatzen dute biko hau eta apenas behar duten aurkezpenik inguruotan. Ahotsa eta gitarra akustikoa jartzen ditu Alfonsok eta gitarra elektrikoarekin osatzen ditu abestiak Gabik. Rock vintagea egiten dute. Chuck Berryren rock'n roll batzuk, The Beatles nahiz Credence Clearwater Revivalen abestiak, Straycatsen rockabillyren bat, Koska taldeak ezagun egin zituen kantuak... joko dituzte.



**Xut (18:45-19:30).....**

Oscar Gonzalezek (baxua eta ahotsa), Jokin Zubillagak (bateria eta ahotsa) eta Expresión Sonora eta Koska rock talde aitzindarien sortzaile den Gabi Agirregomezkortak (gitarra eta ahotsa) osatzen dute. Rock eta blues klasikoaren abesti ezagunak jotzen dituzte, besteak beste Fletwood Mac, Bad Company, Joe Cocker eta Dire Straitsenak.

**Bikustik (19:45-20:15).....**

Jon Gurrutxagak eta Patxi Zabaletak 2008ko maiatzean sortu zuten proiektua da. Rockaren klasikoak eta gaur egungo beste hainbat kantu modu akustikoan moldatzen ditu bikote honek. Jon Gurrutxaga (Arima Beltza, Uek, Andranak, Jon & Sugramas, eta gaur egun bakarari gisa *Hitz lauz* diskoa aurkezten dabil) eta Patxi Zabaleta (Arima Beltza, Kokoteraino, Sinuöse, Andranak) osatzen dute bikoa. Beatles, Queen, Janis Joplin, Led Zeppelin eta Credence Clearwater Revival moduko taldeen kantuak bertsionatzen dituzte.







### **Brilet (20:30-21:00) .....**

2022ko irailean sortutako taldea da Brilet. Asier Olabarrieta, Jesus Jimenez eta Nerea Gil elgoibatarrek osatua. Pop-rocka eta musika elektronikoa uztartzen ditu taldeak.

### **Amorante (21:15-21:45) .....**

Ez du aurkezpen beharrik Amorantek. Iban Urizar (Elgoibar, 1975) musikariaren proiektua da. 2014tik han-hemen dabil emanaldiak ematen eta musika sortzen. Herri musika du oinarrian proiektuak, baina esan dezakegu herritik, errotik eta erraieratik sortzen duela Amorantek. Tronpeta, autotunea, elektronika, inprobisazioa.... Osagai asko eta ezin hobeto uztartuta, tradizioari traizio pixkat egitea zilegia dela erakutsi du elgoibartarrak. Herri musikatik abiatuta ertzetatik mugitzen da Amorante.



### **Kokoteraino (22:00-22:30) .....**

Patxi Zabaleta, Oier Gurrutxaga, Iker Rodriguez eta Gorka Errezilek osatzen dute Kokoteraino. 1992an sortu zuten taldea, hasieran Nahitanahiez izenarekin. Hain justu ere izen horrekin egin ziren ezagun, baina denbora gutxi iraun zuten izen harekin, Kokoteraino izena hartu baitzuen taldeak gero. 1993an kaleratu zuten maketa, Kilometroak 96ko diskoan eman zuten kantua eta makina bat emanaldi sutsu izan ziren laukotearen ekarpena. 2018ko abenduan berriro elkartu ziren, Sinuösek eskatuta, Sotoan kontzertu bat emateko.



### **Amildegí (22:45-23:30) .....**

Elgoibarko musika taldea da Amildegí ere eta bost lagunek osatzen dute: Gaizka Uranga (bateria), Markel Uranga (gitarra), Unax Esnaola (ahotsa), Julen Zubizarreta (gitarra) eta Gorka Irisarri (baxua). Punk, Rock, Oi! estiloko kantuen bertsoiak egiten dituzte, bai eta ikuskizuna eman ere zuzenekoetan.



Pentsamendua eta jakintza lantzeko, euskalduntasunean sakontzeko eta elgoibartarrak norbanako eta komunitate moduan ahalduentzeko, 'Zergatik eta zertarako euskaldun?' ekimena jarri du martxan Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak, Udalaren laguntzarekin. Ekimen horren baitan bi kultur gile gonbidatu zituzten Elgoibarrera: Jon Sarasua eta Ibai Iztueta, eta bien hitzak bildu ditugu hurrengo sei orrialdeotan.

## "HERRI EGITEN GAITUZTEN ZUNTZAK EZ GARA ARI BEHAR BESTE DINAMIZATZEN"

✍ Aina Argoitia / 🗣 Imanol Larrañaga

'Zergatik eta zertarako euskaldun? Egiten duguna pentsatzeko, pentsatzen duguna egiteko' ekimenaren barruan, 'Herrigintzaren lainopetik' hitzaldia eman zuen Jon Sarasua kazetari, soziologo eta Euskararen Gogoetagea egitasmoaren koordinatzaileak (Aretxabaleta, 1966) Elgoibarren, martxoaren 30ean, eta han esandakoen kronika jaso dugu hemen, komunitate moduan ahalduentzeko baliagarri izan daitekeelakoan. Elgoibarren Sarasuak esan zituenetan sakondu nahi duenak aukera du Interneten, Euskaltzaindiak Youtuben daukan kanalean eskegita duelako Sarasuak joan zen azaroan Donostiako Luis Villasante Euskararen Ikerlanean eman zuen hitzaldia, zortzi ataletan banatuta.



Euskalgintza krisian dago. Euskara biziberritzeko prozesuak emaitza onak eman ditu -"beste inongo herritan lortu ez direnak"- baina kezkatuta egoteko motiboak ere badauzkagu. Berdin herrigintzan. Tesi hori darabil aspaldian Jon Sarasuak, eta metafora batekin irudikatu ohi du: Euskararen biziberritzean, Aizkorrira iritsiko ginelakoan abiatu ginen Arantzazutik, baina Urbian lainoa sartu da eta hor gaude, lainopean. "Igoera handia egin dugu 60 urtean, meritu handikoa, baina ez gara Aizkorrira iritsi". Eta lainope horretan, bi aukera dauzkagu: Urbiako tabernan mokadua egitera gelditu, edo aurrera egin. Sarasuak argi du: "Ez dauzkagu beste hamar urte despistatuta egoteko.

Erreakzionatu egin behar dugu, bai alderdien eta gobernuen politikan, bai eta euskalgintzan ere. Jauziak eman behar dira, eta jauzi horiek irudikatzen eta pentsatzen hasita gaude. Orain,

*"Ez dauzkagu beste hamar urte despistatuta egoteko.  
Erreakzionatu egin behar dugu, bai alderdien eta gobernuen politikan,  
bai eta euskalgintzan ere.  
Jauziak eman behar ditugu"*

gutxi gorabehera, badakigu estrategiak nondik jo behar duen".

Tesi horren bueltan ardaztu zuen hitzaldia aretxabaletarrak. Aitortu zuen urtetan saiatu izan dela euskararen gaia, politikagintzarekin eta herrigintzaren beste aspektu batzuekin lotuta egon arren, apur bat bereizten, baina Elgoibarren, beste angelu abertzaleago edo politikoago batetik ere erreparatu zion gaiari, datozen 40 urtetarako klabeak izan daitezkeenak aipatzeko. Bi zatitan bereiztu zuen hitzaldia: euskararen biziberritzeaz aritu zen lehenengo, eta "bihotza euskalgintza duen" herrigintza zabalago batetaz gero. Azpimarratu zuen bietan egin dela asko, baina bietan gaudela krisian, eta aurrera egiteko ezinbestekoa ikusten duela ametsa berritzea, "belaunaldi bat ez delako hasten lanean, amets edo utopiarik ez bada". Uste du beste energia olde bat behar dela gizartea esnatzeko. Euskarari eta bere komunitateari bizia opa izatea eta horren alde ekitea kontu zaharra dela nabarmendu zuen, eta guk ondoen ezagutzen dugun prozesua azken 60 urtetakoa izan arren, katea ez zela duela 60 urte hasi, baina bai belaunaldi hark lortu zuela, Frankismo bete-betean, gerrak erabat estali zuen Euskal Pizkundea mugimendu politiko eta kultural emankor haren hondarretatik esnatzea. Amets batek eta justizia egarri batek esnarazi zuen

**Bizitzako funtzio guztiak euskaraz beteko zituen belaunaldi bat irudikatu zuten 60ko hamarkadako euskaltzaleek. Amets batek jarri zituen lanean. Orain, gizartea esnatzeko, beste energia olde bat behar dela uste du Sarasuak.**

duela 60 urteko euskaltzaleen "txingurritegia". "Gure gurasoen belaunaldiak esan zuena izan zen: gure euskara zaharra da, bai, baina guk lortuko dugu euskaldun egiten gaituen tresna hau modernizatzea eta irudikatuko ditugu gure seme-alabak beren bizitzako funtzio guztiak euskaraz betetzen. Euskara izango da Euskal Herri eta mundu hobeago eta gizatiarrago bat sortzeko esperimuntuko hizkuntza". Lizardik behinola idatzi zuen 'baina nik, hizkuntza larreakoa, nahi haunat ere noranahiko' ametsa gauzatzeko sortu zituzten euskara batua eta terminologia oso bat, gau eskolak, aisialdi antolatua, ikastolak, euskarazko hedabideak, administrazioa euskalduntzeko erremintak... Sarasuak azaldu zuen kontakizunarekin eta gizarte aktibazioarekin, eta diru publikorik gabe lortu zela egitura hori





osatzea lehendabiziko 25 urteetan, geroago sortu zirelako hemen erakunde publikoak. Geroztik, lanerako egitura publikoa eta zibila izan dela ekarri zuen gogora eta azpimarratu biak izan direla ezinbesteko. Baina orain, irabazteko dugun "terreno handia" irabazteko, adostasunak lortu behar direla esan zuen. "Alderdi abertzaleek adostasunak lor ditzatela behingoz haien artean desgastatzen ibili beharrean eta abertzale ez direnek laga diezagutela egiten, beligerantziak utzita". Eta euskaltzaleei oro har zentratzeko eskatu zien eta ez galtzeko burua epaitegietatik egiten ari zaizkigun jokaldi makurretan. "Debatea hor jartzea da haiei gehien interesatzen zaiena", ohartarazi zuen.

Proposatu zituen egiteko batzuk ere, sarreran aipatutako Euskaltzaindiaren hitzaldian zehaztasun handiagoz aipatzen dituenak: euskal hezkuntza publikoa eta bereziki D eredu birmoldatzea, besteak beste. Arrazoi bidezko baliabideetan hobetu beharra ikusten du, ikasleak euskal kulturarekin identifikatuta sentitzeko, eta hedabideen inguruko gogoeta ere ekarri zuen mahai gainera. "EITB sortu zenean pentsatzen genuen euskaldunok masiboki ikusiko genuela, eta 80ko hamarkadan funtzionatu zuen gutxi-asko, bost kanelatik bat zelako, baina apustu horrek, diru guztia EITBn jartzeak, ez du funtzionatzen. Bi aldiz diru gehiago jarrita ere EITBren audientziak ez dira handituko. Zergatik ez sortu Euskal Herrian tokiko informazioa euskaraz lantzen duten hamabost Goiena, adibidez? Zergatik ez dugu egin? Gabiltzalako betiko interesei begira, ez daukagulako ikuspegi estrategikorik eta eskualdeetan ez dagoelako konfiantza politikorik, nagusiki EAJ eta ezber abertzalearen artean".

### **HERRIGINTZAN, IPAR BILA**

Herrigintzan ere izan zen esnaldi bat duela 60 urte, kooperatibak, alderdi abertzaleak eta beste hamaika mugimendu sortu zituenean belaunaldi hark, baina herrigintzaren energia hura galdu egin da. "Herri egiten gaituzten zuntzak ahuldu egin dira" eta arrazoen artean aipatu zituen Sarasuak, batetik, borroka armatuaren alde egin zutenen eta erakundeetatik lan egitea hobetsi zutenen artean sortu zen "arrakala", eta bestetik, gaur egungo gizartearen ezaugarriak. "Mendebaldeko gizarte

*"Estatuaren hedabide sareak  
jan egin gaitu. Jaten dugunetik  
bizi gara, eta Hego Euskal Herrian  
Espainia jaten dugu,  
eta Iparraldean, Frantzia"*

kontsumista batean bizi gara eta horrek jariatzen duen gizakia bere interesei eta gorputzari begira dagoena da. Oro har, hiperkapitalismo horrek ez du konpromisoa bultzatzen, baina egia da hor ere hotz egiten duela eta gizakiok behar dugula komunitatea, behar dugula beroa, behar dugula zerbait partekatuan sinistea, herri bateko sinistea". Hor ikusten du egiteko handiena. Euskal herrigintza xake taularekin alderatuta, momentu honetan ditugun piezekin jai daukagula esan zuen, "pieza hauekin ez garelako ari herri egiten gaituzten zuntzak (euskara, kultura, memoria, nazio kontzientzia, konpromiso jarrera...) behar beste dinamizatzen" eta taulara zeharka ibiliko den alfil bat gehitzea proposatu zuen irtenbidetzat.

Sarasuak garbi dio nazio kontzientzian atzera egiten ari garela, "ez dago belarria jarri besterik. Gaur egun, hemen, Goya sariei begira gaude denok. Iparraldean, euskal kulturaren esnatze ikaragarri bat dago, baina hegoaldean inor ez da enteratzen horretaz. Hemen, Goya sariei begira gaude, Iparraldeko kultur mugimenduari erreparatu barik". Estatuaren hedabide sareak jan egin gaituela ohartarazi zuen: "Jaten dugunetik bizi gara, eta Hegoaldean, Espainia jaten dugu, eta Iparraldean, Frantzia". Eta ez du ikusten inor horren kontra egiten ari denik, ezta alderdi abertzaleak ere. Horregatik ezinbesteko eta urgentziatzko ikusten du herrigintza eskolak sortzea, nondik gatozen, zer egin dugun, gu geu zer garen eta gure gizartearen ezaugarriak zeintzuk diren eta nora joango garen markatzeko. Eta horretarako guztirako, beste pieza bat sortu behar dela uste du, egiteko nagusitzat euskaldun egiten gaituzten zuntzak indartzea izango duena "Mugitzen den gazte jendea badago eta latente daude euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna ere, baina iparra lausotzen duten faktore berriak daude, eta haien kontra egin behar da".

## IBAI IZTUETA

'Euskal Kultura vs. Cultura Vasca'  
liburuaren egilea

✍ Ainhoa Andonegi / 🗣 Asier Orbea

Batzuek euskal kultura euskarazkoa baino ez dela diote, beste batzuek, aldiz, espainolez edo frantsesez egindakoa ere badela defendatzen dute. Horixe izan zen Ibai Iztuetak (Zegama, 1977) Elgoibarren eman zuen hitzaldiaren muina. Giza eta gizarte zientzietan doktorea eta 'Cultura vasca vs. Euskal kultura' liburuaren egilea da Iztueta. Gaur egun irakasle dabil IRALEn.

*“Euskal Herrian bere burua euskalduntzat dutenek bere bizitza euskaraz egiteko eskubidearen eta konpromisoaren aldekoekin nago ni”*

**'Euskal kultura vs. Cultura vasca'. Zein da bien arteko desberdintasuna?**

Euskal kultura euskaraz egiten den hori da, berdin dio nork, berdin dio zer. Aldiz, *Cultura vasca* eta *Culture basque* zera dira: Euskal Herrian hizkuntza espainolak nahiz frantsesak euskal hizkuntza ordezkatu ondoren geratzen den hori (gutxi gorabehera). Eta horien baitan bi tipo bereiz daitezke, *Cultura vasca* asimilatua eta *Cultura vasca* erresistentea. Bertsio asimilatua ordezkapena naturalizatu edo normaldu duen kultura da; bertsio erresistentea, berriz, euskara berreskuratzeko zubi lana egiten duena.

**Txillardegirentzako, euskal kultura euskaraz baino ez da posible, euskara delako egiazki bereizten gaituen gauza bakarra”; eta Zallorentzako, berriz,**



**hizkuntzak ez du horrenbeste garrantzirik, eta halaxe dio: "Euskal Herrian bizi den jendearen nortasunak askotarikoak dira, beraz, espainolez eta frantsesez egiten dena ere euskal kultura da". Norengandik zaude zu gertuago?**

Euskal Herrian bere burua euskalduntzat dutenek bere bizitza euskaraz egiteko eskubidearen eta konpromisoaren aldekoekin nago ni. Hori esanik, hara hor bi iruzkin, maila ezberdinetan kokatu beharrekoak: Hala Txillardegirenaren tipoko arrazoibideak nola Zallorenaren tipokoak euskararen normalizazioak daukan behar diferenteei erantzuten diete, eta bi hizkuntza desberdinetan daude pentsatuta: lehenengoa euskaldunentzako pentsaturiko arrazoibidea da, eta euskal hiztunen asertibitate premia larriari erantzuten dio; bigarrena erdaraz dago pentsatua, erdaldun elebakarrak ditu batik bat gogoan eta erdaldun izanik "euskaldunen parteko" sentitu beharrari erantzuten dio. Kontua litzateke behar biak nola asetu, bestearena abandonatu gabe.

Eta, orain, bigarren iruzkina: galderak tranpa dauka dilema faltsua aurkeztearekin batera hierarkia faltsua irenstarazten diolako erantzun behar duenari. Galdera inpertienteak denez, erantzun inpertienteak emanez bukatzen dugu. Kuestioa ez da hizkuntzak kultura defintitzeko

orduan zein paper duen, baizik eta kulturaren ideiak hizkuntzaren normalizazioan zein paper betetzen duen.

Beste era batera esanda, nire ustez euskaldunontzako galdera pertinente eta aipaturiko hierarkia eta dilemen faltsutasuna agerian uzten dituena beste hau da: "Euskaraz normal egin ahal izateko, zein funtzio betearaziko diogu euskal kulturaren ideari?".

### **Galdera horren erantzuna, testuinguruaren arabera aldatu egiten dela diozu. Zein testuingurutan planteatu zenuen zuk?**

Kulturari buruzko galderak talde-identitateari eta herritartasunari buruzko galderak dira noski, eta zehazki galdera modu hau tipikoa da hizkuntza ordezkapenak eta nazio subordinazioak trauskildutako gurea bezalako herrietan. Horrelako testuinguruetan sortzen dira, eta emango zaien erantzunak hizkuntza ordezkapenean eta nazio subordinazioan sakontzearen alde ala kontra egiteko balioko du. Bestalde, bistakoa behar luke, galdera euskaraz egiteak ala erdaraz egiteak testuinguru desberdinak adieraziko dizkigula. Are gehiago, praktikan, galdera desberdinak izango dira, ondoez desberdinek motibaturikoak direlako eta, ondorioz, erantzun desberdinak beharko dituztelako. Argiago ere esan dezaket: Zeraingo elebidun euskaltzale baten eta Tafallako elebatar euskaltzale baten helburu orokorra berbera izango da, euskaldunaren (edo euskararen, gauza bera dira) normalizazioa, baina abiapuntuko kezka, ezina, ondoeza, desberdinak.

### **Nola definituko zenituzke, esaterako, hizkuntzarik erabiltzen ez duten arte grafikoa edo plastikoa?**

Berez, hizkuntzarik erabiltzen ez duten arteak "herri" etiketen bidez definitzeko premiarik ez dago, eta errazena unibertsaltzat jo eta estiloaren bidez definitzea genuke ziur asko, edo "nongoa" den adieraziz, Kafka idazle txekiarrak dela esaten denean bezala. Baina "herri" etiketaren bidez etiketatzeko interesa handia izanez gero, bada, orduan arte horren bokazioari errepara lekiok edo, are errazago, arte espresio horiek izan ohi duten testuinguru idatziari (artelanen izenburuak, katalogoak, aurkezpen ekitaldiak eta abar...).

Baina pentsatzen dut Oteiza eta gisakoak izango zenituela gogoan galdera egiterakoan. Bada, horrelakoetan, autoreari berari galdetu behar bere lanaren bokazioaz, edo norberari autore

*"Zeraingo elebidun euskaltzale baten eta Tafallako elebatar euskaltzale baten helburu orokorra berbera izango da, baina abiapuntuko kezka desberdina"*

horren obrak euskal kulturaren alde apustu egiteko bultzadarik eman dion baloratu behar. Oteiza batek "euskal kultura vs cultura vasca" terminotan galdetu izan baliote, zer esango zukeen, auskalo. Eta imajinatzen dut zenbaitentzat Oteizaren obra euskarara hurbiltzeko zubi izango zela eta, beste askorentzat, berriz, ez.

### **Euskal Gizartea eta Euskal Herria kontzeptuak ere bereizten dituzu. Nola definituko zenituzke?**

"Gizarte" eta "Herri" terminoak erabiltzen ditut bi kontzeptu bereizteko. Gizartea espazioa adierazteko, zehazki esparru administratiboari edo lurralde administratuari erreferentzia egiteko. Herria, berriz, taldea zehazteko, autoadskripzio edo nortasun kolektibo bera partekatzen duen subjektu taldeari erreferentzia egiteko alegia. Ildoan, gizarteko subjektuei "hiritar" esango diegu eta Herria osatzen dutenei "herritar". Bereizketa honek, besteak beste, balio du nabarmentzeko Salamancako batentzat edo Iruñeko batentzat gauzak ez direla berdin. Salamancako batentzat "Gizartea" esan edo "Herria" esan, edo "hiritar" esan edo "herritar" esan, berdin dio, harentzat esanahiok erosotasunez gainjartzen direlako. Euskal lurraldean gauzak konplikatukoagoak dira: euskal herritar taldea gizarte ezberdinetan banatuta dago eta, era berean, Euskal Herriko administrazio esparru ezberdinetan herritartasun sentimendu ezberdindun jendea bizi da.

### **Euskararen normalizazioak badauka eraginik euskal kulturaren. Zer da euskararen normalizazioa zure ustez?**

Euskara, hau da, euskalduna, normalizatzen den egunean, euskal kulturaren izaerari buruzko galderek zentzua galduko dute; kontua, beraz, euskal kulturaren ideia normalizatzea da, euskararen ezagutzan eta erabileran eragin dezan. Euskararen normalizazioa erdararen normalizazioarekin batera ulertu behar da eta bi



kontzeptu bereizi behar lituzke. Negoziaziorako formula-tipoa ondorengo litzateke: "ezagutzaren bermea" eta "erabiltzeko hautua": bi hizkuntza espazio bera negoziatu beharrean diren gizarte batean hiritar guztiak "bestearen" hizkuntza ezagutu behar lukete eta "norbere" herriaren hizkuntza erabiltzea hautatu.

### **Terminologian ere gatazka dagoela diozu zure tesian. Zer da euskal eta zer da vasco?**

Terminologia gatazka horretan pentsamenduari, sentimenduari eta estatusari loturiko arazoak gordetzen dira. Arazo nagusia da, gaur egun, "euskal" terminoa ez dela bere esanahiari eusteko gai eta "vasco" terminoarekin adierazi nahi den horren itzulpen bihurtzen ari dela. Euskaldunak pentsamendu, sentimendu eta estatus propio bat garatzeko zailtasuna du eta, horretaz gain, mundu ikuspegi baskoak sensibilitate propio hori garatzen ere ez dio utzi nahi, instintiboki lehiakidetzat eta bere banitatearentzako mehatxutzat daukalako.

### **Zein egoeratan ikusten duzu euskal kultura gaur egun?**

Nire gusturako, egoera zailean, euskaldunak gutxi garelako euskal lurraldean, eta espainiar nahiz frantses mentalitate probintzianoan

*"Mende amaiera alderako Bilbok %15eko hizkuntzaren kale-erabilerara iristearekin fantaseatzen dut, beraz, atera kontuak"*

hezitakoak asko, eta hori horrela edo okerrago izan dadin interesaturikoek baliabide ugari dituztelako. Mende amaiera alderako Bilbon %15eko hizkuntzaren kale-erabilerara iristearekin fantaseatzen dut, beraz, atera kontuak.

Era berean, egoera miresgarrian ere ikusten dut, zailtasunak zailtasun eta gabeziak gabezia, nazio kultura bat definitzen duten kulturaren lau eremuetan, hau da, kultura herrikoi tradizionalan, kultura herrikoi modernoan, kultura jaso tradizionalan eta kultura jaso modernoan, bere burua kalitatez adierazteko ahalmena erakusten ari delako. Atzo goizean erabat ezabatuak izateko zori-zorian egotetik gatzozela jakinik, gauza handia da hori: Errenditzen ez diren herrietako jendeek bakarrik egiten dezakete hori.





VI. URTEURRENA

*Jose Ignacio Sarasua Garate*

2017ko apirilaren 11n hil zen, 60 urte zituela.

***Zure falta sumatzen dugu,  
baina gure bihotzetan zaude.***

Etxekoak



VI. URTEURRENA

*Jose Ignacio Sarasua Garate*

***Zure oroimenak indartzen gaitu.***



ELGOIBARKO UDALAREN  
TXISTULARI TALDEA

VI. URTEURRENA

*Jose Ignacio Sarasua Garate*

***Izan zarenagatik  
eta erakutsi duzunagatik,  
ez zaitugu inoiz ahaztuko.***



## Asteartean zabalduko dute udako oporraldirako izena emateko epea

**A**txutxiamaiak eta Udal Ludotekak HH2tik LH6ra arteko umeentzako udako oporraldia antolatu dute, eta asteartean zabalduko dute izena emateko epea. Apirilaren 25etik maiatzaren 7ra arte eman ahalko da izena, eta maiatzaren 20an esleituko dituzte plazak, behar den kasuetan zozketa eginez. Urtero bezala, bi txanda egongo dira aukeran: lehenengoa ekainaren 26tik uztailaren 7ra, eta bigarrena, uztailaren 10etik 21era. 09:30etik 13:00etara arteko zerbitzua emango dute, eta LH1-3 arteko umeek egun osoko irteera izango dute astean behin. LH4-6koentzat egonaldiak eta ekintza solteak antolatu dituzte. Atxutxiamaiak, bestalde, eskaintza honen osagarri diren goizeko zaintza zerbitzua eta txoko osagarriak eskainiko ditu. Goizeko zaintza oporraldi osoan zehar egongo da aukeran, 08:00etatik 09:30era, eta



txoko osagarriak bestalde, ekainaren 22-23an eta uztailleko azken astean eskainiko dituzte.

Izena emateko: [www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus) webgunean, Elgoibarko Izarraren bulegoan edota Ludotekan. Informazio gehiago nahi duenak Elgoibarko Izarrara (943 741 746) edo Ludotekara (943 748 883) deitu dezake.



### Ipuin kontaketa saioa, domekan, Mendaron

Liburuaren Nazioarteko Eguna da domekan, eta horren harira, ipuin kontaketa saioa antolatu du Mendaroko Arno Guraso Elkarteak, Udalaren laguntzarekin. San Agustin kulturgunean izango da, 18:00etatik aurrera, doan.

### Aisialdiko eskaintzan hauren parte-hartzea bermatzeko dirulaguntzak

Elgoibarko Udalak dirulaguntzak emateko deialdia ireki du familia ugariarentzat eta guraso bakarreko familientzat, bigarren alaba edo semea inskribatzen duten familientzat eta diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edo

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzen dituzten familientzat. Eskaerak apirilaren 27a baino lehen (27a barne) aurkeztu behar dira Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan edo [elgoibar.eus](http://elgoibar.eus) webgunean.

### 'Si las mujeres mandasen' zartzuela gaur, Herriko Antzokian

Masa Coral del Ensanche abesbatzak *Si las mujeres mandasen* zartzuela taularatuko du gaur, 19:00etan, Herriko Antzokian. Zartzuela honek auzo bohemio bateko entsegu lokal batean prestatzen ari diren antzezlanaren irudikatzen du, eta konpositore ospetsuen obra ezagunenetarikoen erreposoa egingo dute. Sarrerak salgai daude [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus) webgunean, eta lehiatilan ere egongo da erosteko aukera.





## Udalak 210.300 euroko dirulaguntza emango die herriko ikastetxeei

**E**lgoibarko Udalak hitzarmen bateratua sinatu du herriko ikastetxeekin *Bizitzarako prestakuntza euskaraz* programen baitan, eta guztira 210.300 euroko dirulaguntza emango dizkiete, 2022/2023 ikasturtean hainbat proiektu eta egitasmo finantzatzeko. Dirulaguntza hori Udaleko Hezkuntza, Gizarte Ongizate, Euskara, Berdintasun, Sustapen Ekonomiko eta Enplegua eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako sailek bideratu dute, betiere, eskolekin adostutako hitzarmenak garatzeko eta sail horien helburuekin bat datozen ekintzak abian jartzeko. Honela banatuko dute diru kopuru hori:



- IMH: 72.358,00 euro
- Elgoibar Ikastola: 71.121,69 euro
- Elgoibarko Herri Eskola: 32.741,29 euro
- IES Elgoibar BHI: 24.301,00 euro
- Meka Elgoibar: 7.947,00 euro
- EPA: 1.826,00 euro

### 'Nire aitak ere bere denbora eskaintzen dit' marrazki lehiaketako irabazleen berri eman du Elgoibarko Udalak



Aitaren egunaren harira, *Nire aitak ere bere denbora eskaintzen dit* Aita Parekidearen Kanpaina jarri zuen martxan Elgoibarko Berdintasun Sailak, eta gurasoekin zuten harremana marrazki batean islatzeko eskatu zieten herriko haurrei. 38 marrazki bildu dituzte guztira, eta dagoeneko, eman dute irabazleen berri.

- Maren Fernandez: 1. saria, lehenengo kategorian
- Libe Jurado: 1. saria, bigarren kategorian
- Nora Alvarez: 2. saria, bigarren kategorian
- Jare (LH3, ikastola): 3. saria, bigarren kategorian
- Adan Leon: 1. saria, hirugarren kategorian
- Oihane Meabebasterretxea: 2. saria, hirugarren kategorian.

### Haritz Eguna ospatuko dute ekainaren 17an eta dantza taldearen bueltan ibilitako guztiei egin diete ospakizunean parte hartzeko deia

Urteurrenaren harira hainbat ekitaldi antolatu dituzte Haritz Euskal Dantzari Taldekoek, eta ekainaren 17an Haritz Eguna ospatuko dute. Trikipoteo batekin hasiko dute eguna, eta ondoren, dantza taldean ibilitako dantzari eta musikariek elkarrekin bazkalduko dute Maalan, Euskal Parrilaren eskutik. Arratsalde- iluntzean Skapaie Elektrotxaranga eta Fan@Go erromeria taldearen emanaldiak izango dira. Egun horren harira, Haritz dantza taldearen bueltan ibilitako guztiak gonbidatu nahi dituzte ospakizunera. Antolatzaileekin harremanetan jartzeko lau bide zabaldu dituzte. Telefonoa: 686 633 178 / Facebook: @haritzedt / Instagram: haritzedt / Aurrez aurrekoa: Apirilaren 20, 21, 28 eta 29an, eta maiatzaren 4an eta 5ean, Musika Eskolako harreran egongo dira 19:00etatik 20:30erako ordutegian, izenak hartzen eta edozein zalantza argitzen. Izena emateko azken eguna: maiatzaren 5a izango da. Prezioa: 35 euro.

## Catan eta Carcassone mahai-jokoan jardunaldia jokatu dute Mendaron

Ondisea elkarrekin antolatuta, Catan eta Carcassone mahai-jokoan txapelketa jokatu zuten zapatuan Mendaron. Catan jokoa Mikel Romero mendaroarra (argazkian) izan zen txapelduna, eta Carcassone jokoa, berriz, Miguel Rodriguez eibartarra. Irabazle bakoitzak Bilboko Distrito Zero dendan gastatzeko 50 euroko bonoa jaso zuen sarritzat. Garaipen honi esker, Madrilen jokatu duten Espainiako kanporaketan parte hartuko dute, uztailaren 8ko asteburuan. Antolatzaileak pozik agertu dira Mendaroko jardunaldiak eman zuenarekin, eta esan dute hotz egin zuen arren, giro onean pasatu zutela eguna.

Devir argitaletxeak argitara emandako jokoa da Catan, mahai-joko modernoetan aurrenekoetakoa, eta erreferente bihurtu dena.



Gaur egun 40 herrialde baino gehiagotan dago eta 30 hizkuntza baino gehiagotan jokatzen da, tartean, euskaraz. Carcassone, berriz, Erdi Aroan girotutako mahai-jokoa da, 8 urtez gorakoentzako aproposa eta bi eta lau jolaskide artean jolastekoa.

### 'Korrotik pikutara. Euskal dantzaren historia bat' dantza emanaldia bihar, Elgoibarren, Kultur Kafean



Haritz dantza taldearen 50. urteurrena ospatzeko egitarauaren barruan, *Korrotik pikutara. Euskal dantzaren historia bat* izeneko dantza-emanaldi didaktikoa egingo dute bihar, 12:30ean, Kultur Kafean. Emanaldi honetan euskal dantzaren historia bat kontatu eta gorpuzten dute Oier Araolazak eta Gari Otamendik, Quico Puges musikariak lagunduta, eta Kezka dantza taldearen eskutik. Dantza molde zaharretatik gaur egungo dantza formatara egindako bideari erreparatuko diote: korroan, borobilean hasi, eta dantzak nola joan diren aldatzen erakutsiko dute.

### Akitania-Baskonia eta franko karolingioei buruzko hitzaldia hilaren 27an, Aita Agirre kulturgunean



Elgoibarko Izarraren barruan sortu den Ilunberri Achademiak hitzaldi ziklo bat antolatu du Udalaren laguntzaz, Goi Erdi Aroko mende ilunak argitzen izenburupean. Aste honetan eman du lehen hitzaldia Jokin Lanz Beteluk, Baskonia erromatarren garaian eta ondorengo mendeei buruzkoa. Bigarren saioa datorren egunean izango da, 19:00etan, Aita Agirre kulturgunean. Iñaki Lopez de Luzuriagak Akitania-Baskonia eta Franko karolingioen erresumak aurre hitzaldia emango du. Baskoniako Dukerriaren sorrera, franko merovingio eta karolingioen eragina, eta Akitania-Baskoniako Dukerri burujabe bikoitzaren goraldi eta gainbehera izango ditu hizpide, besteak beste.



III. URTEURRENA

## *Oier Etxaniz Beneitez*

2020ko apirilaren 17an hil zen, 31 urte zituela.

***Zaila da onartzea  
inoiz ez zaitugula berriro ikusiko.  
Hala ere, Oier, bizi garen bitartean,  
ez zaitugu inoiz ahaztuko.***

Etxekoak



III. URTEURRENA


## *Ioseba Arrizabalaga Mendikute*

*"Iriarte"*

2020ko apirilaren 19an hil zen, 43 urte zituela.

***Beti egongo zara gure bihotzetan.***

Emaztea eta seme-alabak



III. URTEURRENA

## *Maria Asuncion Mendikute Zubiaurre*

2020ko apirilaren 21ean hil zen, 71 urte zituela.

***Zure argia ez da sekula itzaliko gure bihotzean,  
gure gogoan biziko zara beti.***


***Maite zaitugu.***

Etxekoak





## Jabier Osorok bigarren egin du San Andresko Hiru Txirlo bola joko txapelketan



**B**olari elgoibartarrak garaipenetik gertu ibili dira Gipuzkoako Hiru-txirlo bola joko txapelketako azken bi jardunaldietan. Etxean lehiatu ziren hirugarren jardunaldian, apirilaren 1ean, Idotorbeko bolatokian. Aretxabaletako U.D.A taldearen izenean jokatzeko duen Isana Gorosabel eskoriatzarrak eskuratu zuen garaipena, egin zituen hirugarren tiraldietan (2-0-3) bost txirlo botata. Gorosabelek, gainera, bere urtebetetze egunean lortu zuen garaipena. Estreinakoz lortu zuen garaipena emakume batek Idotorbeko bolatokian. Aistiakoa da orain emakume bat gailendu ez den bolatoki bakarra. Idotorbeko tiraldian San Migel taldeko Xabier Loiola izan zen txapelburua, 5 txirlorik eta Asola Berri taldeko Pedro Gomez sailkatu zen hirugarren postuan, lau txirlo botata.

Joan den zapatuan, apirilaren 15ean, Soraluzeko San Andres auzoko bolatokian jokatu zuten txapelketako laugarren jardunaldia. Guztira 65 bolari aritu ziren lehiaketa eta bolari elgoibartarrak maila oso onean aritu ziren oraingoan ere. San Andres taldeko Lander Odiaga markina-xemeindarra gailendu zen sei txirlo botata. Jabier Osoro elgoibartarra izan zen txapelburua, bost txirlo botata; eta, Garikoitz Rodriguez (Asola Berri) sailkatu zen hirugarren. San Migel taldeko Imanol Osoro eta Unai Loiola

sailkatu ziren, hurrenez hurren, laugarren eta seigarren postuetan. Lau jardunaldi jokatu ostean, Lander Odiaga dago lider sailkapen nagusian, 20 txirlorik. Lau elgoibartar daude lehen hamar sailkatuen artean: Imanol Osoro (4. postuan), Jabier Osoro (7), Unai Loiola (8) eta Xabier Loiola (9). Bikotekako lehiaketa ere nabarmentzen ari dira San Migel taldeko bolariak. Behin behineko sailkapen nagusian Xabier Loiolak eta Imanol Osorok osatutako bikotea dago lehen postuan eta Unai Loiolak eta Jabier Osorok osatutako bigarren postuan. Taldekako lehiaketa Asola Berri taldeak eusten dio lehen postuari, 84 txirlorik, eta San Migel A taldea dago bigarren postuan, 71 txirlorik. San Andres A taldeak 54 ditu.

### Urkamendi-Kalbario mendi ibilaldia, domekan

Urkamendi-Kalbariora mendi irteera antolatu du Morkaia apirilaren 23rako, Herri Eskolako eta Ikastolako gurasoekin elkarlanean. Aloiñara joatea zuten pentsatuta, baina egun berean Aloiñako Igoera mendi lasterketa jokatu dute, eta horregatik, plana aldatzea erabaki dute. Debako tren geltokitik abiatuko dira oinez, eta hasiko duten leku berean amaituko dute ibilaldia. Deba ibaia gurutzatu ondoren, pinadi eta zelai artean gora Urkamendiraino igoko dira eta tontorra egin ondoren, Kalbarioko ermitara joango dira. Mokadu bat egingo dute



han, indarrak hartzeko, eta Santiagoko erromes bideari jarraia, Debako tren geltokira itzuliko dira. Zazpi bat kilometroko ibilalditxo izango da, eta Elgoibartik 09:20an irtengo dira.

## Asteburu berean, Debako eta Elgoibarko txirrindularitza lasterketak irabazi ditu Eneko Ortega txirrindulari elgoibartarrak

Sasoibetean dago Eneko Ortega Larrañaga Besa-Laboral Kutxako txirrindulari elgoibartarra. Aurreko zapatuan, hilak 15, Debako Amaika Bat jubenilen txirrindularitza lasterketa irabazi zuen, eta biharamunean Elgoibarren jokatu zuten Elgoibarko Hiria Saria lasterketan ere, bera izan zen azkarrena Idotorbeko gaina zapaltzen. Sasoi eta proiektzioa, biak ditu txirrindulari elgoibartarrak. Debako lasterketan 105 kilometroko ibilbidea osatu zuten, eta sprintean gailendu zen Ortega, 2 ordu, 40 minutu eta sei segundoko denbora eginda. Lehia estua izan zuen Beñat Iñarra (Ulma-Aloña Mendi) txirrindulariarekin eta Gari Ugarterekin (Bellota Goierri), baina garbi irabazi zien esprintean, gehiago zela erakutsita. Beñat Iñarrak egin zuen bigarren, eta Gari Ugartek, hirugarren. Besa-Laboral Kutxako beste txirrindularia, Aritz Esnaola mendarorarrak 61. egin zuen atzo sailkapen nagusian, (2:44:29). Elgoibarko Lagun Taldeak antolatu zuen etxeko lasterketan, berriz, ihes eginda ailegatu zen Ortega helmugara, Idotorbeko gainera, 3,8 kilometroko azken igoera gogorrean jarraitzaileei aldea atera eta gero. Besa-Laboral Kutxako txirrindulariak 2 ordu



sei minutu eta 52 segundo behar izan zituen proba amaitzeko. Haren atzetik sartu ziren helmugan Unax Olano (Limousin-Oriako), 26 segundora, eta Ibai Irisarri (Limousin-Oriako), 33 segundora.

## Masterren Erriberriko txirrindularitza lasterketa irabazi du Iban Gonzalezek



Erriberrin hasi eta bukatu zen, joan den apirilaren 10ean, Pedro Canarias Memorialaren 18. edizioa, master mailako txirrindularientzako lasterketa. Guztira ehun bat laguneko tropela abiatu zen eta Gobike taldeko Iban Gonzalez

elgoibartarra izan zen guztietan azkarrena. Metro batzuetako aldearekin gurutzatu zuen helmuga Gonzalezek. Haren atzetik helmugaratu ziren Agustin Pena Gago eta Lakeo Girasol.

## Hiru eguneko irteera antolatu du Morkaikok Iparraldera maiatzaren 1eko jai-zubirako

**E**ibarko Klub Deportiboarekin batera antolatu du irteera Morkaiko Mendizale Elkarteak. Hiru eguneko irteera izango da, Iparraldera, eta gaur da izena emateko azken eguna. Hiru eguneko irteera da antolatu dutena, apirilaren 29tik maiatzaren 1era artekoa, eta Baigorriin hartuko dute ostatua. Apirilaren 29an, Bagargiako lepotik Artanolatza gainera (1530 m) igoko dira eta Okabe gailurra eginda (1466) Bagargiara itzuliko dira. Biharamunean, apirilaren 30ean, Zaro-Gatarre-Zaro mendi ibilaldia egingo dute, eta maitzaren 1erako, Aldude-Alba eta Elizondo lotzea dute aurreikusita. Dena den, beste ibilbide batzuk ere begiz jo dituzte, eguraldiak lar lagunduko ez balu, aldatu ahal izateko. Baigorriin hartuko dute ostatu, hori bai, eta jaiaz gozatzeko aukera ere



izango dute mendizaleek. Izan ere, apirilaren 30ean, Nafarroaren Eguna ospatuko dute Baigorriin eta egun osoko ekitaldi sorta dago antolatuta: kontzertuak, dantza, musika... Irteerako bi prezio zehaztu dituzte. Morkaiko Mendizale Elkarteak bazkideek 185 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek, 205 euro. Izena emateko ondoko lotura honetan sartu behar da eta izen-emate orria bete. Izena ematerakoan, 50 euroko fidantza ordaindu beharko da, eta antolatzaileek argi utzi dute dirurik ez dutela itzuliko azken unean ez joatea erabakitzen duenari.



### Hogei bikote ari dira parte hartzen pala txapelketetan

Abian dira gizonezkoen eta emakumezkoen pala txapelketak. Hogei bikotek eman dute izena. Hamar bikote ari dira gizonezkoenean parte hartzen eta beste horrenbeste emakumezkoenean. Joan den apirilaren 11n jokatu zituzten lehen partidak eta ekainaren 23ra bitartean jokatu dituzte Emakumezkoen X. Pala Txapelketa eta Gizonezkoen VI. Pala Txapelketa, Kalegoen plazako frontoian (euria bada, Ikastolako frontoian). Martitzenetan, 18:00etan hasita, eta domeketan, 11:00etan hasita, jokatu dituzte partidak.

### Igeriketa Eguna kolokan, kiroldegiko beharginen greba deialdia dela-eta

Elgoibarko Igeriketa Taldeak Igeriketa Eguna zuen antolatuta zapaturako, eta Elgoibar eta Mendaroko 180 eskola-ume zeuden parte hartzeko izena emanda. Udal Kiroldegiko behargin azpikontratatuak, baina, greba mugagabea hasi edo ez erabakitzen ari ziren lerrook idazterako orduan, eta horregatik kolokan dago Igeriketa

Eguna, soroslerik gabe ezin baita antolatu. Beharginek eguenean zehar erabaki behar zuten grebara batu ala ez, BPXport enpresak eginiko proposamena aztertu ostean. Eguenean, 20:00ak arteko epea zuten botoa emateko. Proposamenarekin ez daudela ados erabakiko balute hasiko lukete greba mugagabea.



**LANA****Eskaerak**

Adinekoak zaintzen eta garbiketa lanak egiteko prest. Beharrezko titulua eta esperientzia.  
631 785 168

Etxez etxe lan egiteko prest nago. Garbiketa lanak egiteko nahiz adinekoak zaintzeko prest. Berehala lanean hasteko moduan. Orduategi malgua. 617 630 178

Adinekoak zaintzen edo etxeko lanak egiten aritzeko prest. Berehala lanean hasteko moduan, izan etxeko langile moduan edo bestela.  
603 169 890

Adinekoak zaintzen edo etxeko lanak egiten aritzeko prest. Berehala lanean hasteko moduan, izan etxeko langile moduan edo bestela.  
631 511 111

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Etxeko lanak ere egiten ditut. Zerbitzari lanetarako ere prest nago. 631 309 160

Adinekoak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo zerbitzari lanetarako prest nago.  
627 629 116

Adinekoak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo zerbitzari lanetarako prest nago.  
687 040 962

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka eta gauzez ere bai.  
605 402 030

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Erizain laguntzaile titulua dut.  
643 505 662

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. 643 505 827

Adinekoak zein umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke.  
624 956 340

Adinekoak zein umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke.  
631 309 160

Lan bila. Adinekoak zainduz, zerbitzari moduan, eraikuntzan edota garbiketa lanak egiten esperientzi handia.  
641 988 643

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest nago. Goizez eta orduka. Esperientzia eta titulua.  
632 116 534

**Eskaintza**

DBH 2ko ikasle batentzat klase partikularrak emateko prest dagoen norbaiten bila gabilta.  
635 750 362

Baserri batean adineko bat zaintzeko pertsona bat behar dugu, etxeko langile moduan. Zaintza titulua eta paperak legez edukitzea beharrezkoa. Heldua izatea eskatzen da, eta autoa badu, hobe.  
653 723 095

**LOKALAK**

Herriko gazte bat naiz, eta lokal bila nabil, nire zaletasun bat gauzatu ahal izateko. Hilean gehienez 350 euro ordainduko nituzke errentagatik  
685739 778 (Hodei)

**GARAJEAK**

17 m<sup>2</sup>-ko garaje itxia alokatzen da, Lekuederren. Sarrera musika eskola ondotik. 3. solairua.  
629 526 683

**ETXEBIZITZA**

Etxebizitza alokatzen da Deban. Urte osoan zehar, hilabeteka edo asteka. Hiru logela, bi bainugela eta bi balkoi eder ditu, etxea jantzita dago. Bista paregabeak. Igogailua zero kotatik.  
657 795 876


Donostian hilabete batzuetarako alokairu bila gabilta. 2023ko urritik 2024ko martxora. Amaran, Easo plaza inguruan edota hiriko erdigunean, ahal dela bi logelakoa.  
639 987 645 / 690 270 468 (Olatz eta Aitor)

**OSPAKIZUNAK**

1943an jalo eta aurtun 80 urte betetzen dituzten elgoibartarrek edo elgoibarren bizi direnek bazkaria egingo dute apirilaren 29an, Txarridunan. Interesatuak 55 euro sartu, Laboral Kutxan, apirilaren 25erako: ES3830350007290071143390. 12:45ean bilduko dira Maalako elizan argazkia ateratzeko.

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzko Eskola Administrazioaren Lanbide-Elkartea</p>  <p><b>ROSA M<sup>ª</sup> PINTADO</b></p> <p>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Gure komunitateko bileren ostean iritzi desberdinak izaten ditugu aktan jasotzeko informazioarekin. Jakin nahi nuke akta idazterakoan zein informazio jaso behar den.</b></p> <p>Etxejabeen batzarretan gai asko iritertzen dira, eta akta jasotzean etxejabe batzuek nahi izaten dute beraiek esandakoak eta egindako ekarpenak aktan jasotzea, baina aktaren edukian ez dira jaso behar etxejabeek batzarrean egindako komentarioak. Legeak dio aktan soilik jaso behar direla batzarrean lortutako akordioak. Legeak ez du inon esaten aktan jaso daitezkeenik komunitateko kideen iritzi eta pertzepzioak.</p> <p>Zenbait kasutan batzarkideen sinadurak jasotzeko aukera ematen du, eta aktan jaso daiteke eskuz desadostasuna sortu duen muturreko konturen bat. Baina ez presidentek, eta ezta etxejabeek ere, ezin dute beraiek esandako guztia jaso aktan, dokumentu hori ez delako horretarako. Akta ez da esandako guztiaren erreproduktzioa egiteko dokumentua, baizik eta, batzarrean adostutakoak jasotzekoa.</p> <p><b>ONDORIOA: Akta ezin da egon legean aurreikusi gabeko fiskalizazioari lotuta, eta juntak berak egin behar du kontrola. Akta idaztea idazkari-administratzailearen zeregin eskusiboa da.</b></p> <p> <b>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA</b> San Bartolome, 2</p>
--	--





Zorionak, **Jon**, apirilaren 16an 5 urte bete zenituelako. Muxu potolo bat familiako denon partez. Maite zaitugu.




Zorionak, **Nahia!** Elgoibarko familia osoaren partez. Asko maite zaitugu.



Zorionak, **Luciatxo!** 8 urte handi igandean! Muxu potolo bat etxekoan, bereziki, Noa, Jon eta Eiderren partez.



Zorionak, **Aia!** 2 urte handi! Ilargiraino eta bueltan maite zaitugu! Muxu berezi bat Liharren partez.




Zorionak, **hirukote!** Hau poza! Patxo handi-handi bat familiako guztion partez. Segi horrela!



Zorionak! 82 urte eta inoiz baino bizipoz handiagoa! Eutsi horri luzaroan amama, ama **Karmen!** Maite zaitugu.



Zorionak, **Oier**, txapeldun! 8 urte handi! Segi beti bezain alai eta jator! Zoragarria zara. Mila muxu etxekoan, eta bereziki, amama Tomasaren partez.



Zorionak, **Pello**, hilaren 12an 6 urte egin zenituelako. Muxu potolo bat, denon partez.



Zorixonak, **Eneko**, etxeko danon partez. Mosu handi bat, zure 9. urtebetetzien. Edartobxu ospatu gendun.



Zorionak, **aittita!** Zure 100. urtebetetzea ospatu genuen domekan familian, eta primeran pasatu genuen. Segi orain arteko energiarekin eta bizitzeko gogoz! Espero dugu urte askoan zurekin gozatu ahal izatea. Maite zaitugu!

## ELGOIBARKO HAURRESKOLA

# Doan!

## LEHEN URRATSA

Zero urterekin hasten da bidea

**Etorri gu ezagutzera!**

Izen-ematea: apirilaren 17tik maiatzaren 16ra

943 742 141

[elgoibar.elgoibar@haurreskolak.eus](mailto:elgoibar.elgoibar@haurreskolak.eus)



# HAURRESKOLAK

[www.haurreskolak.net](http://www.haurreskolak.net)



## 21 BARIKUA

**19:00** Zartzuela: 'Si las mujeres mandasen'. Herriko Antzokian. Sarrerak erosteko: *herrikoantzokia.eus*

**20:00** Anfibioak eta gaueko tximeletak ikusteko irteera. Morkaikok, Atxutxiamaikak eta Baso Biziak elkarteak antolatuta. IMHn batuko dira. (Izena emandakoentzat).

**21:30** Udaberriko Gararok musika saioak, Mendaron. Ama say eta Arima taldeen kontzertuak, San Agustin kulturgunean.

## 22 ZAPATUA

**10:30** Igeriketa Eguna. Elgoibar Igeriketa Taldeak antolatuta, Olaizaga Kiroldegian.

**12:30** 'Dantzaren historia dantzan: Korrotik pikutara'. Aita Agirre kulturgunean.

**16:00** Ikastaroa: 'Barrez lehertzen'. Beatriz Egizabal eta Paki Caballerok emango dute, Lilan. Haurrak zaintzeko zerbitzua egongo da.

**18:00** EME Eguneko kontzertuak, Maalako parkean.

## 23 DOMEKA

**12:30** Bakarrizketa: 'Magma mia'. Beatriz Egizabalek emango du. Aita Agirre Kulturgunean, doan.

**16:00** Ikastaroa: 'Barrez lehertzen'. Beatriz Egizabal eta Paki Caballerok emango dute, Lilan. Haurrak zaintzeko zerbitzua egongo da.

**16:30** Familia antzerkia: 'Gure kanoa'. Zurrunka teatroak emango du, Herriko Antzokian.

**18:00** Elsie Xalbador ipuin kontalaria, Mendaron, San Agustin kulturgunean. Arno Guraso Elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatuta.

## 24 ASTELEHENA

**18:00** Hausnarketa taldea: 'Biktimismotik erantzukizunera'. Loredi Salegik emango du, Lilan. Emakumeentzat.

## 25 MARTITZENA

**18:00** Literatura tailerra: Ray Bradburyren 'Fahrenheit 451'. Haizeak antolatuta, Udal Liburutegian.

**19:00** Hitzaldia: Haizea Kortaberria: 'Abante Gazteak'. Elgoibarko EH Bilduk antolatuta, Bilgunean.

## 26 EGUAZTENA

**18:00** Hitzaldia: 'Haurrei eta nerabeei emozioekin lagunduz: nola zaindu seme-alaben emozioak'. Kultur Etxeko hitzaldi gelan, euskaraz. Treba Gurasoak egitasmoaren barruan.

**19:00** Epeletan literatur tailerra: Nerea Arrienen 'Zoonomia'. Udal Liburutegian.

**19:30** Elkarrizketa musikatu: Aitor Gorosabel. EME elkarteak antolatuta, Sotoan.

## 27 EGUENA

**19:00** Hitzaldia: 'Akitania-Baskonia eta franko korolingioen erresuma aurrez aurre'. Iñaki Lopez de Luzuriagak emango du 'Goi erdi aroko argi ilunak argitzen' zikloaren barruan. Elgoibarko Izarrak eta Ilunberri Achademiak antolatuta, Udalaren laguntzaz.

GOI ERDI AROA: ERROMAREN GAINBEHERA/IKIRUÑEKO ERRESUMAREN SORRERARA. MENDE ILUNAK ARGITZEN

**Akitania-Baskonia eta franko korolingioen erresuma aurrez aurre**  
Hizlaria: Iñaki Lopez de Luzuriaga – Historia gaietako ikertzailea eta dibulgatzailea

Apirilak 27, osteguna  
19:00  
Aita Agirre Kulturguneko areto nagusia

Antolatzaileak:    Laguntzailea: 



**Zinea**



**'Mari(dos)'**

22 zapatua: 19:00 / 22:15  
 23 domeka: 19:00  
 24 astelehena: 21:00

**'The quiet girl'**

(Ongarri zinekluba)  
 26 eguaztena: 21:00

**2023ko botika ordutegiak:** 09:00-13:00 / 16:00-20:00  
 GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)  
 OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

**APIRILA**

- 21 BARIKUA
- 22 ZAPATUA
- 23 DOMEKA
- 24 ASTELEHENA
- 25 MARTITZENA
- 26 EGUAZTENA
- 27 EGUENA
- 28 BARIKUA

**Egunez**

- Yudego
- Oruesagasti / ■ Arriola
- Oruesagasti
- Barrenetxea
- Ibañez
- Garitaonandia
- Arriola
- Fernandez

**2023 urte guztian, gaeuz: 22:00-09:00**  
**Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)**  
**943 203 052**

- |  |  |  |
|--|--|--|
| <p>■ Fernandez:<br/>                 Herriko Enparantza,4<br/>                 Garagartza (Mendaro)<br/>                 943 756 142</p> | <p>■ Ibañez:<br/>                 Rekalde, 1 (Soraluze)<br/>                 943 751 638</p> | <p>■ Oruesagasti:<br/>                 Kalebarren, 9 (Soraluze)<br/>                 943 751 384</p> |
|--|--|--|



IV. URTEURRENA  
**Araceli Uria Retolaza**

2019ko apirilaren 19an hil zen, 48 urte zituela.

**Gure ondotik joan zara,  
 baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.**

Familiakoak



**Josefa Gabilondo Agirregomezkorta**

2023ko apirilaren 8an hil zen, 102 urte zituela.

Haren oroimenez meza izango da, domekan, apirilaren 23an, 10:00etan, Idotorbeko elizan. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere. Aurrez, eskerrik asko mezara gerturatuko zaretenoi.

**Izan zarena,  
 erakutsi duzun kemena,  
 gure artean geldituko da  
 zugandik jasotako dena.**

Etxekoak





Jabi Agirrek bidali du erretratu zahar hau BARENERA. Pedro Mugurutzako ikastetxea ageri da, oraindik ere ikastetxe zen garaian. Agirre bera ere han ikasitakoa da, beste elgoibartar asko bezalaxe. Elgoibarko Udalak eraikina behera botatzeko asmoa duela jakin du Agirrek, eta albiste horrek hausnarketa bat behar duela iritzita eskatu digu argazki hau publikatzeko. Pedro Mugurutzako eskola elgoibartar askoren bizitzaren parte dela esan du, eta han bizitakoez oroitu da. Han ikasitakoa, patioan pasatako orduak, seme-alaben bila etortzen ziren gurasoak... etorri zaizkio gogora. Atzera bueltarik gabeko egoera batera iritsi aurretik, eraikin horri beste erabilpen bat ematea proposatu du, Aita Agirre eraikinarekin egin duten bezala. "Birziklapena oinarritzakoa dela argi daukagu, aldiz, gure bizitzaren parte diren eraikin publikoen berrerabilitzea ez da behar bezala sustatzen. Eman diezaiegun aukera bat eraikin zaharrei, egoera onean badaude behintzat, elgoibartarren etorkizuneko belaunaldien parte izaten jarrai dezaten".





**LAGUNAK**  
colchoneria textil hogar





Luzera:	90	105	135	150
Prezioa:	655€	740€	855€	915€

**180 cm-ko luzeerako koltxoietan**  
**%5** gehituko da prezioa, eta 200cm-koetan, **%10**.

1. STRETCH BEADLINE EHUNA / 2. MOTON  
 3. AIRFILL / 4. ATZERKO HIRU DIMENTSIOKO EHUNA  
 5. VISCOETERMICO / 6. HEPERSOFF  
 7. BICOCELL PLUS / 8. POLITER  
 9. ARTIKULAZIOA ETA TRANSPAZIBRABO PROFILATZEA

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)





- ✓ IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA
- ✓ MULTIKOPISTAK
- ✓ FOTOKOPIAGAILUAK
- ✓ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ✓ MARRAZKETA MATERIALA
- ✓ INFORMATIKA
- ✓ FAXA

**MEKANOSA**  
Errosario, 27-Elgoibar  
**943 740 284**

Jon Aranoa  
Guillermo Torres



San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
Astrikohatetik ostiralean: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
Larunbata: 11:00 - 13:00

Leopoldozi zerbitzua daukagu.  
Datu ardua hartzeko.

**PINTURA ETA DEKORAZIOA**  
**CORDON VILARCHAO**  
cordonvilarchao@telefonica.net  
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26  
**943 740 570 / 636 986 162**

## EXPRESS ESKAINTZAK!

**BALAY**  
**3TS995BT**  
**ARROPA**  
**GARBIGAILUA**

**A**

**559 €**



- 9 kg karga
- 1400 b/min
- 3G sentsorea
- Etenaldia + karga funtzioa
- Soft danbor barriaioa
- Bibrazioen aurkako panelak
- Amaiera geroratua 24 ordura arte

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



## KONTSULTATEGIA

“

*Endodontzia egin berri dut.  
Koroa jarri behar dut?*

”

Endodontzia hartz-nerbioa kentzeko tratamendu bat da, hortza bera salbatu ahal izateko eta hark betetzen duen funtzioa mantentzeko egiten dena. Tratamendu hori txantxarra oso handia den kasuetan egiten da, txantxarra hortzaren nerbioraino iritsi denean.



Tratamendu endodontiko batean bi egoera desberdin gerta daitezke. Alde batetik, txantxarrak eragindako kaltea oso sakona ez denean, endodontzia egiten da eta ondoren pieza berreraikitzen da. Bestalde, hartz-pieza oso kaltetuta badago, beharrezkoa izango da hartz-koroa bat jartzea egonkortasuna emateko eta, horrela, hartz naturala babesteko. Hau da, kasu bakoitzaren eta endodontziatutako piezaren egoeraren arabera izango da guztia.

Aldaz Hartz Kliniketan endodontista talde bat dugu, hartz-arazoarentzako irtenbiderik onena emango dizuna.

**ALDAZ HORTZ KLINIKA**  
San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar  
iyd@dentalaldaz.com  
**943 366 377**

## Gure ikasleen bizipenak

### Irati Agirrezabala

### Etxaniz

Mendaroarra, 20 urte

Mantentze erdi-maila, Mekatronika  
goi-maila eta Espezializazioko ikaslea.  
**Lanbide Heziketa**

#### Nor da Irati?

Mendaroarra naiz eta natura gustatzen zait: txakurrarekin pasiatzea hondartzan, mendian ibiltzea... Ikasketei dagokionez, Mantentze Lan Elektromekanikoko erdi-mailako zikloa ikasi nuen lehenengo. Praktikak egin nituenean, nirekin oso gustura zeudela esan zidaten, baina goi-mailako perfila zuen norbait behar zutela azaldu zidaten. Erdi mailakoa erraz egin nuenez, goi-mailakoa egitea erabaki nuen. Zalantzak izan nituen Diseinua edo Mekatronika egin, eta azkenean, esku artean "katzarreatzea" gustatzen zaidanez, Mekatronikan jarraitu nuen. Mekatronikako bigarren urtean espezializazio programan sartu nintzen, eta orain espezializazioa amaitzen ari naiz, Duala Danobat enpresan eginez.

#### Zergatik aukeratu zenuen erdi-maila, goi-maila eta espezializazioa egitea?

DBHko ikasketak amaitu ondoren garbi nuen ez nuela Batxilergoa ikasi nahi. Orain nagoen toki berera iristeko, ez nuen "denek egiten zutena" egin nahi, eta bazegoen "beste bide bat". Urte eta erdi ikasi, eta ondoren lanean hasteak erakartzen ninduen. Aita ikusita ere, banuen horretarako gogoia. Orain espezializazioan oso gustora nabil, eta enpresan bat gehiago naiz. Lanean, makinak muntatzen ditugu, nire kasuan artezgailuak. Bestalde, IMHn prestatzaile izateko prestakuntza jasotzen ari gara, ondoren, lanean, jauzi hori emateko.

#### Zergatik aukeratu zenuen IMHn ikastea?

IMHk izen ona du, eta bizi naizen lekutik gertu dago. Eta, era berean, lanerako irtenbide asko dituela ere entzunda neukan. DBHko bisitan etorri nintzen ikastetxera lehenengoz, eta gero, atea irekitzeko jardunaldira etorri nintzenean, bertan ikasteko erabakia hartu nuen.



#### Zein da zure iritzia orain arte IMHn eta Dualean ikasi eta bizi izan duzun esperientziari buruz?

Urte hauetan asko ikasi dut. Erdi-mailatik goi-mailara badago aldea, baina hasieratik erraza egin zitzaidan erdi-mailatik nekarren oinarria banuelako. Gainera, ikaskideen artean oso giro ona izan genuen. Goi-mailan heldutasuna ikasteko interesa badago, eta espezializazioko eredu dualean, nire profila sakontzen ari naiz, oso gustura. Enpresan beste lankide bat banintz bezala hartzen naute, euskaraz hitz egiten dugu gure artean, eta bezeroekin ingelesez. Muntatzera kanpora joatea egokitzen bazait ere, gustura joango naiz.

#### Esan ahal diguzu zer den IMHtik gehien gustatzen zaizuna?

Ezer jakin gabe sartu nintzen, zero. Bi urtetan sekulako aldaketa izan zen: denetik ikasi nuen oso denbora gutxian. Erronken bidez ikastea ez da irakaslearen "txapa" entzutea, zure kabuz galdetu dezakezu, eta ikasteko metodo hobea iruditzen zait. Erronkak taldeka egiten dira, eta goi-mailan oso ondo moldatu gara taldean. Espezializazioan enpresa desberdinetako ikaskideak gaude, praktikan sakontzeko gogotsu. Gure artean "pike" sanoa daukagu.

#### Zer asmo duzu datorren urterako?

Danobaten oso gustura nago, eta lanean jarraituko nuke, baina aukerarik ez badut, ikasten jarraitzeko asmoa dut.

#### Neska izateagatik nola bizi duzu zure egoera industria arloko ikasketetan eta praktiketan?

Ez dut sentitu aparteko bereizketarik; ondo moldatu naiz. IMHn bai eskatu diguzue gu agertzea, beste neska batzuek ere ikus gaitzaten.

#### Zer esango zenioke zurea moduko zikloak ikasteko zalantzan dagoen neska bati?

Ez izateko beldurrik; berdin-berdin balio dugula. Batzuetan enpresa batzuek propio neskek bilatu ohi dituzte, zehaztasuneko lanetarako adibidez.

## Informazio Saioak

Maiatzak 6 · 11:00

Maiatzak 17 · 17:00

